

MANUEL LEKUONAREN LITERATUR KREAZIOA

JUAN MARIA LEKUONA

Gai honi buruz dagoen bibliografiari begiratzen badiogu, eta norberak zuzenean ezagutzen duena kontuan hartuz, oharkizun jakinak eta jakingarriak egokitzen zaizkigu aukeran. Hasteko, eta sarrera gisan, zenbait ohar orokor egin dezagun.

Manuel Lekuonaren kreaziozko literatur idazlanak han eta hemen zabaldurik aurkitzen dira argitaraldi zeharo desberdinetan, lanei hurbilketa bat egitea nahiko zaila gertatzen delarik. Eta zailtasun hau oraindik areagotzen dela esan behar, idazlan hauek agortuak daudelako, edota bilduma eskuragaitzetan aurkitzen direlako. Eta ez hori bakarrik: zenbait idazki argitaratu gabe dago oraindik, egilearen esku-izkributan, noiz argitaratuko zai.

Bestalde, Lekuona Zaharraren literaturgintza beren liburuetan aipatzen dutenek ere, lagintza horren zati edo alderdiren bat bakarra dakarte; eta ikuspegi orokorra damaigutenek, berriz, oso orokorki eta oso laudoriotsu aurkezten digute autorea. Hitz batean esateko, iritzi onekoa bezain gutxi zehaztua gertatzen dela Manuel Lekuonak berak sorturiko literaturaz eman den iritzia.

Hala ere, une hauetan konponbiderik izan dezake idazkiak eskuratzeko aipatu zailtasunak. Egilearen «Idaz-lan Guztiak» sailean, literaturgintza pertsonala bere osoan etorriko da, erabateko bilduma tajutuz. Beraz, asko erraztuko da idazlanetara hurbiltzea.

Idazlan guztien bidez Manuel Lekuonaren literaturgintza eskuarteko egin ondoren, norbereko literatura horren aurkezpen zehatzago eta sistematuago baten beharra gelditzen zaigu. Eta behar honi osabide bat emateko asmotan dator nire gaurko arakatze hau, aurtengo zenbait gertakizunek eraginik etorri ere.

Ospe haundiko bi omenaldi jaso ditu Lekuona Zaharrak: Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman dio, eta Gipuzkoako Seme Kuttun Titulua eskuratu; eta Eusko Ikaskuntzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek omenaldi bat eskaini diote Donostian (1). Eta omenaldi-

(1) Gipuzkoako Foru Aldundiko ospakizuna Aldundiaren Jauregian egin zen. Apirilaren 21ean, eguerdiko 13etan. Eta Eusko Ikaskuntza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiena, «Victoria Eugenia» antzokian, Apirilaren 23an.

ko txostenetan literatura pertsonalari buruzkoa gure esku egon denez, egokialdi hau ona iruditu zaigu gaiari astiroagoko azterketa bat eskaintzeko, gaiak, gure iduriko, merezia duenez. Manuel Lekuonak literatur kreazioa buru-belarri landu ez badu ere, arretagarri diren zenbait gauza eskaintzen dizkigu: haur literatura, konta-poesia eta prosa ez-literarioa; eta zeresanik ez darabilzkien teknika zaharrak eta lortzen dituen formulaketa ongi landuak.

Baita ere, aipagarria derizkiot beste honi: Lekuona Zaharra nahiko atipiko gertatzen dela gerraurreko eta gerrondoko literatur mugimenduetan. Bere hitz-lauzko eta hitz-neurtuzko lanek ez dute mendekotasun nabaririk eredu-mailan ez Orixe eta ez Lizardirekin, orduan beste askok zuten bezala; eta oraindik zerikusi txikiagoa duela esan behar azkenaldiko joera ezagunekin. Eta atipikotasun honek garrantzi berezia ematen diela esango genuke bere literatur idazlanei bai teknika aldetik, bai estilo aldetik, bai ederkarari buruzko zenbait gustamolderen aldetik. Eta hori dela bide, ongaria dela uste dugu Manuel Lekuonaren kreaziozko literatura arakatzea, mugimenduen joera nagusietatik kanpo dabiltzanak ere kontuan eduki ditzagun. Aniztasunezko ikuspegiak bere bahoia du, bai errealitatea ezagutzeko, bai joera gutxiago ezagutu horiek erabilgarri bihurtzeko.

I.— AIPAMEN ETA IRITZIAK

Esan beharrik ez dago gure asmoa ez dela aipamen eta iritzi horietan sartzea, baizik-eta dela berorietaz baliaturik gaiari sarrera bat ematea, abiapuntu bat hartzea, argigarri izango delakoan.

1.— Luis Mitxelenak, *Historia de la Literatura Vasca* izenekoan, antzerki musikadunez ari delarik, hau dio: «Un ensayo muy interesante fue *Eun dukat* de los hermanos Manuel y Martin Lekuona, zarzuela sobre un tema folklórico» (2).

2.— I. Sarasolak, *Euskal literaturaren historian*, Mitxelenaren aipamen beratsua dakar: «Lekuona anaien *Eun dukat* obra folklorikoa». Geroago, gerraondoko prosa ez-literarioaz ari delarik, eta artikulugintzaz mintzatze-koan, hau esaten digu: «Manuel Lekuona, beste lan askoren artean *Gero-ren* laugarren edizioaren prestatzaile». (3).

3.— B. Estornes Lasak, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco-n*, «Literatura» Saileko III. alean, hau du gure arlorako aipagarri: textu-aukeraketan, poesiekin batera bi erreportaia dakartza. Olerkari eta prosalari bezela aurkezten digu autorearen idazkintza (4).

(2) L. MITXELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, «Minotauro», Madrid, 1960, 153 or.

(3) I. SARASOLA, *Euskal literaturaren historia*, «Lur», Zarauz, 1971, 121 eta 133 or.

(4) B. ESTORNES LASA, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, «Literatura», III. alea. «Añañamendi», Donostia, 1973, 554-540 or.

4.— S. Onaindia da, noski, aipamenik luzeena eta hornituena egiten diguna. Manuel Lekuona idazle eta eragile bezala aurkezten digu. Eta iritzi orokorrak ere tartekatzen dizkigu: «Asko idatzi du euskeraz ta erderaz», «olerkari lez ez digu askorik ondu», «Lekuona artista dugu euskal literaturan» (5).

Honenbestez egina dago autorearen aurkezpen soila: teatrogile, poeta, prosalari. Bistan da, bere literaturgintza ikuspegi zabalago eta zeahaztuago baten eskasian gelditzen dela. Gu, geure aldetik, zertxobaiten ekarria eskaintzera goaz saio honetan.

II.— LAN HONEN IBILBIDEAK ETA HELBURUA

Lehenik eta behin, bilduma on baten beharra ikusten genuen, geure ikuspegia ahalik-eta zabalena eta osoena eskaini ahal izateko. Gaia oso barreiatua egonik ere, egilearen paperetaz baliaturik, lortu dugu Manuel Lekuonaren literatur idazki gehienak arakatzea. Hau egin ezik, zaila zitekeen iritzi zehatzago batetan pentsatzen hastea.

Gero, azterketak egin beharra zegoen. Eta lehen begiratu batean ikusten zen, zenbait idazlanek garrantzi haundiagoa zutela beste batzuek baino; eta garrantzitsuenen miaketak eginez gero, nahiko landua zegoela Manuel Lekuonaren literatur idazlanei buruz egindako azterketa osoxea. Horregatik, haur literaturaren teknika tinkatzeko *Iesu Aurraren bizitza* hartu dugu poesiarako, eta *Txuri eta gorri eta kikirriki* ipuinetarako. Helduen literaturari buruz, konta-poesiarako *Gerrateko nere amabi kantak*, eta *Erti-izti-ko* zenbait saiakera prosa ez-literarioaren xehetasunak finkatzeko.

Uler daitekeenez, literaturgintzaren ezagutzarako, azterketen osabide on zitezkeen autoreak berak ialkitako argibideak. Arretagarri jotzen ditugu egilearen ahotik jaso ditugun histori eta kultur xehetasunak, bai orduko giroari buruzkoak, bai textu bakoitzari dagozkionak. Idazlanen historia jakinak ikuspegi zehatzagoa eta aberatsagoa gertatzen direnez, kontuan eduki ditugu, baita ere, gure lan hau mamitzerakoan.

Gure helburua da Lekuona Zaharraren literaturgintza pertsonala bere osoan eskaintzea, eta literaturtasuna bakarrik arakatzea, ondorio batzuren bidez iritzimolde zehatzagoak eskainiz. Horretarako, lehenik alderdi orokorrak markatuko ditugu, ingurugiroa eta idazlanen sailkapena oratuz. Gero, gure iduriko aipagarrien diren lanen azterketa dator, xehetasun arretagarrienak ekartzen direlarik. Eta azkenik, iritzi zabalak eta balio-maila ematea, ekarriaren zernolakotasuna agerian jarritz.

(5) S. ONAINDIA, *Euskal Literatura (V)*, «Etor», Bilbo, 1977, 232-237 or.

III.— INGURUGIROA

Erakunde batzuen eta kultur mugimendu jakinen barruan egiten dugu beti gure literatur idazlana. Eta behar bada, lege honen barruan, Manuel Lekuonak are eta gehiago markatuko du denena den joera hori. Inork gutxi bezala daki gizarteak dakarkiona jasotzen eta testigu aparta izaten; eta inork gutxi bezala, baita ere, itzuliko dizkio kolektibitateari, berak han eta hemen jasotakoak, lan berri eta literatur mugimendu eginik itzuli ere. Eraginak jaso eta eragile izan, tradizioa bereganatu eta bide berriak ebaki: utziezinezko xehetasunak ditugu Manuelen literaturgintzaz historikoki jabetuko bagara.

1.— Etxea

Manuel Lekuonak, eta literaturaz bakarrik ari garelarik, etxekoa du poesigintzarako lehen eragina. Bere amaren anaiordea zuen Migel Antonio Iñarra (1864-1898), poeta sariztatua (6). Apaiz hau gazterik hil zen eta beronen biblioteka Manuelen baserrira etorri zen parte. Apaiza eta poeta zen osaba Migel Antonioren liburuek eta aldizkariak lotzen dute Manuel Lekuona orduko zenbait joerekin eta literatur moldekin. Iñarraren bidez lotzen zaio Donostiako literatur mugimenduari, eta baita orduko irakurketa ohizkoenei ere. Aipatzekoak dira, besteak beste, «Euskalerrria» aldizkaria, «La

(6) Migel Antonio Iñarra Mitxelena, Oiartzunen jaio zen, 1864-IX-28an. Hamazazpi-hemezortzi urte arte meagizona izan zen, Sanartzazu-ko minetan (San Narciso, Irun) lana egiten zuelarik. Apaiztarako ikasketak Urnietan (hemen latina, Antia apaizarekin), Oñatin eta Gasteizen egin zituen. Meza-berria Durangon eman zuen, 1891an. Oiartzunen ez ornen zen celebratorik izandu. Literaturaren alorrean, apaizgai zelarik hasia zen euskal poesia lantzen. Bere lehenengo argitaraldiak «Euskalerrria» aldizkarian egin zituen, 1888an. Gazterik joan bazen ere mundutik, berrogeitaka dira «Euskalerrria»-n plazaratu zituen olerkiak. Hauetako batek, «Arrantza» izenburua duenak, lehenengo saria irabazi zuen Donostian, 1891an antolaturiko Euskal-festak sariketan. Hona zer sari eman zioten: «UN LIRIO DE PLATA, al autor de la mejor poesía bascongada con libertad de asunto y de metro». Bigarren saria Domingo Agirrerri eman zioten eta hirugarrena Rosario Artolari. «Omengarria»-n azaltzen denez. Iñarrak, literaturaz gain, euskal kulturaren beste zenbait alderdi landu zituen, bibliogratian ikus daitekeenez. Eta iritziari gagozkiolarik, Piarres de Biriatur (Nikolas Alzolak, noski) esandakoa jasoko dugu hemen: (Consiguio) «claridad de expresión y valores idiomáticos y artísticos con ensayos felices que le hacen acreedor a un puesto en la Literatura Vasca en el grupo de los renacentistas de finales del siglo pasado» (79 or.). Eta R. M. Azkuek Iñarraren irudi hau eskaintzen digu: «...gizon biotz andikoa ta burutsua izan da: gogamenetan zakona, esakeretan illun-samarra, egikeretan biurri bako» (158 or.).

Apaiz bezala, erretor-lagun edo koadjutore izan zen Pasai Donibanen. Eta Nafarroako Diputazioak euskal-irakasle bat eduki nahirik, konkurtso bat eratu zuen, eta Iñarra izan zen irabazle. Hala ere, «Nafarroako Ekautak beregana deitu-orduko eroan dau launa, toki oba batera», esaten digu lekeitiarrak. Hogei eta hamairu urtetan hil zen. Buruko atakea izan zuen, Igeldon sermoitan zegoela, etxean entzun dudanez. Pasai Donibanera ekarri eta hilobia egin zioten, elizondoan, zimitoian.

Ikus: *Num^o 16 de Bautizados, Parroquia de Oyarzun*, fol.266 v.—Euskal-festak *Donostian, Oroi-mengarria, año 1891*, «Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran», Donostia, 1891, VII or., eta 33-36 or., eta hur.—A. ARZAC, *Apuntes necrológicos. D. Miguel Antonio de Iñarra*, in «Euskalerrria», 38 (1898), 369-370 or.—R. M. AZKUE, *Miguel Antonio Iñarra*, in «Euskalzale», 2 (1898), 158-159 or.—C. ECHEGARAY, *Una exploración arqueológico somerisima en el país de las etimologías (sobre un trabajo inédito del mismo título, del Pbro. Iñarra)*, in «Boletín de la Academia de la Historia», 72 (1918), 500-503 or.—*Egun zorioneko bat Durangon*, (Iñarraren mezaberriaz), in «Euskalerrria», 24 (1891), 476-478 or.—P. BIRIATU, *Escritores bidasotarras: Iñarra*, in «Vida Vasca», 1968, 77-79 or.

Verdadera Ciencia Española»-ko liburu bilduma, eta poesi lanetan Verdager-en idazlan guztiak (7). Ikusten denez, Antonio Arzakek Inñarraren laguna izan behar zuen, eta berau egon zen «Etxetxiki»-n, Migel Antonioren jaiotetxean. Horregatik, euskal olerkirako joera berezko zerbait gertatzen zen Manuel Lekuonaren famili giroan (8).

2.— Gasteizko Seminarioa

Esan daiteke Manuel Lekuonaren literatur eittea eta nortasuna hemen finkatzen dela bere luze-zabalean: ordukoak ditu eragin berriak, ordukoak tradizio-altxorari buruzko ikaskuntzak eta azterketak, ordukoak teknikak eta gustamoldeak. Seminario eta elizbarrutiko zenbait erakunde eta langitzek osagarri ona dakarkiotere autorearen kreaziozko idazlanei.

a.—Euskarazko katedra

Euskarazko katedraduna zenez Seminarioan, nolerebaiteko zerikusia izan zuen ikastetxe hartako literatur mugimendu gaztearekin: ez eragile bezala bakarrik, baita lekuko bezala ere.

Erakunde barruko lan isilaren adierazpena «Gymnasium» aldizkaria dugu (9). Beste sailen artean, literatura saila ere lantzen zuen argitalpen honek. Apaizgaiak zientzi eta literatur mailan trebatzeko zen. Agertzen da hitz-lauzko idazlanik, eta olerki berririk ere bai. Han-hemenka ikus daitezke handik urte batzutara euskal literaturaren esparruan aipamen bat jasoko duten zenbait izen: A. Zugasti, F. Loidi, D. Jakakortajarena, M. Errezola, Xalbador Zapirain eta abar.

Gasteizko Seminarioko olerki giroaren ezaugarriak bikainenetakoa Lekeition ospaturiko VII Olerti-Eguna dugu. Azkue aita-seeen omenez egin zen urte hartan, 1936ko ekainaren 28an (10). Irabazleen izenak aldarrikatu eta sariak banatzeko orduan, erabaki hau eman zuten epai-mahaikoek: *Opazko Saria* Inñaki Otamendik jaso zuen (zilarrezko aritz-adarra), *Gizadiñak* izeneko poema zela bide. Anjel Sukia izan zen ohorezko aipamenaren diploma jaso zuena, *Eusko apaizgaiarena* izeneko poemari esker. Gero, Manuel Lekuonari eman zioten bigarren saileko saria, epika deritzan ariko poema bati eskainia, *Iesu Aurraren Bizitza* deituriko idazlanari opa ziotena (11). Hiruok Seminario Nagusikoak ziren, apaizgaiak lehenengo biak, irakaslea hirugarrena.

(7) Inñarra hau irakurle oso saiaturia zen. Egunkari batean zehatz-mehatz idazten zuen egun hartan zer irakurri zuen. Liburuaren erantzukia zinetan hartua zuen.

(8) Migel Antoniok irabazitako *zilarrezko lilia* neronentzat ere eragin bat izan zen. Amonak erakutsi zidanean olerkari izateko gogoia sentitu nuen.

(9) «*Gymnasium*», Revista Bimestral de Iniciación Científico-literaria de los seminaristas de la Diócesis de Vitoria. Sei urte iraun zuen: 1927-1932, bi urtealdiak barne.

(10) Ikus «Yakintza», 4 (1936), 240 or.

(11) *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. «Literatura» II. «Añamendi». Zarauz, 1970. 339-340 or.

Ez dugu ahaztu bear beste hau ere: F. Etxeberriak irabazi zuen lehenengo saria, gai librean, Urretxuko Olerti Jaietan, 1933an; F. Loidik lehenengo saria, poemen sailean, Zarauzko Olerti Jaietan, 1934an; D. Jakakortajarenak bigarren saria, gai librean, Ernaniko Jaietan, 1932an (12). Hiruok ere iraganberriak ziren Seminarioko literatur girotik.

b.— Eusko-Folklore

Izen honekin aldizkari bat baino gehiago beste zabalagoko zerbait esan nahi genuke: lantalde bat, metodologia bat, kultur jokabide eta jarrera bat, argitaraldi bilduma bat, eta euskal kulturaren eragileen izen andana bat.

Literaturari bakarrik atxikiz, Manuel Lekuonak urtealdi honetan herri-literatura biltzen du (13), berau gero eskoletan aztertzen du eta hitzezko magisteritzan banatzen, eta azkenik idazkien bidez zabalkunderako prestatzen (14). Ahozko literaturarako joera honek zeharo markatzen ditu autorearen gustamoldeak, teknikak, zuzeneko erreferentziak eta zitak, aurreragoko azterketetan ikus daitekenez.

c.— Euskaltzaindiaren ardurapean

Arabako umeteria euskalduntzeko, plagintza bat asmatu zuten orduko apaiz gazteek. Gauza jakina da apaiz eginberritakoan Araban igarotzen zizuztela apaizgintza hartuz geroko lehen urteak; eta euskal irakasle ezinobeak zitezkeela Bizkai-Gipuzkoatik zetozen elizgizon haiek.

Ekingtza honek itzal bat izan zezan, eta eragozpenak jarri ez zitzaten, Euskaltzaindiaren ardurapean joan zen langintza hau guztia. Beste gauza asko bezala, ekitaldi hau ere gudateak suntsitu zuen.

Manuel Lekuonak ere Arabako umeak euskalduntzeko ihardunaldietan eskuhartu zuen; eta bere lanetako bat izan zen, euskara ume mailan erakusteko, jolasketak asmatzea. Eta ekitaldi honek bultzatzen du haur literaturaz arduratzera, eta berau espreski lantzeraz, Lekuona Zaharraren literatur ezau-garririk jakingarrietakoa izateraino iristen delarik alderdi hau (15).

d.— Elizbarrutiko euskal itzultzaile

Ba du Manuelek beste eginkizun bat, bere literaturgintzarekin oso loturik dagoena, batez ere prosagintzarekin. Elizbarrutiko euskal itzulpenen ar-

(12) Ibid., 339 or.; 337 or.— J. ARIZTIMUÑO, «AITZOL», *Itzaurrea*, «Eusko-Olerkiak 1933», «Aldundegiko Jauregian», Donostia, 1933, VI-XXX eta 1-24 or.

(13) M. LEKUONA, *Observaciones generales sobre el lenguaje infantil*, in «Eusko-Folklore», 1 (1921), 35-37 or.—ID., *Cantares populares*, ibid., 10 (1930), 35-39 or.—ID., ibid., *Gabon kantak*, 13 (1933), 29-86 or.

(14) ID., *Métrica Vasca*, (Discurso apertura curso 1918-1919). «Montepío Diocesano», Gasteiz, 1918.—ID., *Poesía popular vasca*. Conferencia V Congreso de Estudios Vascos, Bergara, 1930, «Nueva Editorial», Donostia, 1934, 132-174 or.—ID., *Literatura oral euskérica*, «Zabalkundea», 17 z., Donostia, 1935.

(15) Oro har argitaratu gabea, egileak gorderiko karpitetan jasoak.

duradun izana. Eliz agiriak euskaratu beharrak erkatze bat dakar erdararen eta euskararen artean. Eta konparatze honek dinamika bat sortu ohi du, euskara estandarizatu baten mesedetan. Euskara gaurkoratu eta teknikara egokitu beharrak ondorio jakin batzuk dakartzi: hiztegi aberatsago eta mugatuagoa, esaldiak aukeran eta aukerakoak edukitzea, estilistikako baliabi-deak idazkeraren onuragarri erabiltzea.

Ariketa honek guztiak eragin jakingarria ote duen nago Manuel Lekuonaren prosa hain ezaguna tinka zedin eta molda. Hitz landua, estilo argi eta dotorekoa da berea. Garbizaleen eta mordoiloen arteko, beti txukun eta herriko, aberats eta bizia. Gainerako beste zenbait xehetasun ekar dezagun, ondorengo azterketetan zerbait aipatuko dugu autorearen prosagintzari buruz .

3.— Aldizkari eta argitaletxeak

Calahorratik Andoaina etortzen delarik, aro berri bat hasi ohi da Lekuonarentzat: prosagintzazko emaitzak. Urte hauetan lehenik «Egan»-en idazle laguntzaile bezala ari zaigu, eta erreportaiak egiteko joera markatzen digu bere literaturgintzan, batez ere edertiari eta euskal kulturari buruzko gaietan (16). Eta zerbait horrelako egiten digu «Euzko-Gogo»-ko elkarlanean ere (17).

Azkeneko hogeitau urte honetan, «Kardaberaz» Taldearen eraginpean, eta «Etor» argitaletxearen apioz, idazgintza jakin batetara makurtzen da autorearen. Dibulgazio lanak euskaraz ere argitaratu beharrak prosa ez-literario bat lantzerantz eramate. Eta haur literatura ikastoletarako eta prestatu beharrak, berriz, bultzatzen dute alor honetan zerbait egitera, batez ere *Txuri eta gorri eta kikirriki* mamitzerantz (18).

Hitz batean, egilearen biziabarrean literaturgintza Oartzunen hasten da, Gasteizen tinkatzen delarik eta goiena hartzen duelarik, eta azken fasea, berriz, Andoainen, bere zikloa berriro Oartzunen isten dela. Pentsa daiteke, literatur lanari gutxiago eskaintzen diola bere baitatik. Poeta da lehen aldian, eta prosagintza ez literarioan bukatzen du bere emaitza. Hauek lirateke hartu dituen eragin nagusienak, eta ibili dituen joera nabarrienak, gain begiratu batetan gauzak ikusiz.

(16) M. LEKUONA, *Ederriak Gipuzkoan*, in «Egan», 1956. 6-10 or.—ID., *Jesusen jaiotza edertian*, ibid., 56-59 or.—ID., *Romanikoa Gipuzkoan*, ibid., 1975, 156-161; 1958, 142-144; eta 1960, 177-181 or. Cero, baita ere, kultur giroko berriak eta histori alorreko mintzaldiak daude aldizkarian.

(17) J. INTXAUSTI, *Zaitegi eta «Euzko-Gogo» (eta II)*, in «Jakin», 13 (1980). 108 or. Lekuonaren interesa: Gipuzkoaren historia, Foruak (ibid.).

(18) Egilearen gogorako izenburuak horrela behar luke: «Txuri ta gorri... ta kikirriki», idazkera osoari baino esaundaren eritmoari amore gehiago emanez.

IV.— IDAZLANEN SAILKAPENA

Idazkiei gainbegiratu bat eman ondoren, hau da lehenik nabaritzen dena M. Lekuonaren literatur idazlan pertsonaletan: haur literaturak duen garrantzia, bai luze-zabalez, bai kalitatez. Euskal literaturaren barruan alderdi hau gutxiengo batek tajuz landu duenez, eta egin dena ere gutxi nabarmendua izan denez, ondo deritzagu Lekuona Zaharraren kasuan haur literatura bereziki aipatzeari.

Horregatik, bereizketa honek bi parte finkatzera garamatza: haur literatura eta helduen literatura. Gainerako sailkatzeak generoen eta mota desberdinen arabera egingo ditugu: poesia, ipuinak, teatroa, saiakera eta kantugintza. Hona hemen markarri nagusienak:

1.— Haur literatura

- a.— *Teatroa: Iesu Aurraren bizitza* (1948) (19).
- b.— *Ipuin eta olerkiak: Txuri eta gorri eta kikirriki* (1978).
- c.— *Jolasketak*: zenbaitzuk argitaratu gabeak; eta egin direnak ere hantemenka agertuak (1936 arte).

2.— Helduen literatura

- a.— *Olerkiak: Olerti-ren girokoak: Eroriak* (1931).
Martiriaren aita ta ama (1931).
Azkeneko olagizona (1950).
Gerrateko nere Amabi Kantak (1949).
Olerki solteak (20).
- b.— *Teatroa: Eun dukat* (1935).
Zigor (1963).
Itzulpenak: Barbier-en Sorgiñak (1932).
Lartzabalen Okillomendi Alkate (1952).
Mayi Elissagaray-ren Ameriketako osaba (1965).
- c.— *Saiakera: Arte-izti: Estetika* (1978) (21).
- d.— *Erlijiozko kantugintza: Eguberri kantuak.*
Eliz kantuak.

(19) Hemen argitalurtea aipatzen dugu; baina zenbait idazlan lehenago egina izan da. Gerrateko gertakizunek dute atzerapenaren errua gehienetan. Azterketetan erabiliko ditugun textuei buruz zer-bait argitasun emango dugu.

(20) 25-30 inguru dira sail honetakoak.

(21) Beste idazki gehiago ere aipa zitezkeen. Hau dakarkigu hemen, gaiaren tramenduagatik ego-kia delako: berak luzaz landutako gaia dugu, aparatu kritikorik gabe emana, baina norabide eta eragin onak dituena, molde argi eta zehatzetan.

Gainbegiratu honek bide ematen digu Lekuonak eskaintako literaturgintzaren hari nagusiak tinkatzeko. Ikuspegi orokor honetatik, orain azterketak egitera irago behar dugu, literaturtasunaren aldetik gure iduriko jakin-garrienak diren idazkiak arakatzu.

V.— HAURRENTZAKO TEATROA

Ataltxo hau *Iesu Aurraren bizitza* deituriko poemaren inguru doa. Garrantzizkoa izan da antzerkitxo hau autorearen literaturgintzan, bai izan duen arrakastaz, bai eskaintzen dizkigun teknik alderdiez. Bost argitaraldi izan ditu lantxo honek (22); eta urterik-urte han eta hemen abesten da, batez ere zenbait ikastola eta eskoletan. Bestalde, gorago esan dugunez, poema hau Lekeitioko Olerti-jaietan saritua izan zen.

Izenburuaren azpian honela mugatzen du egileak idazkiaren zernolokotasuna: «Eresidun aur-poematxoa, bost kantetan». Jesus Haurraren ebanjeliotik ari zaigu gehienik, misterioak kantatuz. Antzesteko egina dugu, ageraldiek estapanptxoan eitea hartzen dutelarik.

Giroaren aldetik, berriz, beti egon bada ere Eguberrietan teatorako grina, kasu honetan oso eragin jakina dago, autoreak aitortu digunez. Errenteriako «Onbide» zinemaretora «Luxemendi»-ren *Jaiotza* ikustera joan zen, eta oso gogoan gelditu zitzaion, batez ere Herodesen pasadizua (23). Orduko hazia, gerora antzeki izatera bilakatu zen.

Laburtasunaren amorez azterketaren xehetasunak ematerik ez daukagunez, hari nagusiak markatu besterik ez dugu egingo. Pieza desberdin bakoitzak herri-literaturan du apio, kantuak damaielarik beti diskurtsoaren moldea eta dinamika. Urratsez-urrats zati bakoitzaren zenbait literatur alderdi aurkez dezagun.

1.— Prologus

«Elizebatxu» hori Ungriako Santa Isabelen bizitzatik hartua dugu. Santa honek bere lagunak, txingo, txingo, txingo, goiko kameran zegoen gurutze baten aurrera eramaten ornen zituen. Santoraletik hartutako idilioa da. Hemen, ordea, gurutze batetara izan beharrean, Eukaristiara eramaten ditu. Eta gurutzearen aipamena, berriz, azkeneko kantuan egingo zaigu, V. kantuan, hain zuzen.

(22) Lehen argitaraldia, «Egan», 1948, I, 11-19 or.; 1948, II, 11-17 or. Edizio laburrak dira, egileak bere bizkar eta kabuz plazaratuak.

(23) Jose Maria Agesta, donostiarra zen, antzerkigilea eta krifiko musikala. «Lushe-Mendi» ezizenez ezagutzen zen. Dozena inguru antzerki idatzi zituen euskaraz 1915an hasi eta 1920 arte. Besteak beste, *Jesusen jaiotza* deiturikoa idatzi zuen, eta berau izan daiteke Lekuonak aipatu digun antzerkia. EGI del PV, «Diccionario Enciclopédico Vasco», vol. I, Zarauz, 1970, 151 or.

Musika «Ai, Pello, Pella» deiturikoa da, eta musikak ezartzen dizkio poemari neurria ezezik diskurtsoaren eitea ere. Elkarrizketa moduan emanik dago, mailaz-maila progresio batean gaia azaltzen doakigu, pausoz-pauso egitura paralelistikoak erabiliz, estrofen arteko loturak bihurkien bidez eginez, eta onomatopeiak egoki eta zehatz sartuz. Eta progresio hori errematean bapatean moztzen da, «jinen hiz bihar» ezezko hura, «gu ere zurekin» baezkora bihurtuz.

«*Ai, Pello, Pello*»

Deikia - arrazoa
galdera.

Agindua - luzapena
agindua - luzapena.

Elizebatxu

Deikia - onomatopeia
galdera.

Notizia - onomatopeia
notizia - onomatopeia.

Ikus daitekeenez, bietan galderantzun antzekoak daude, progresio baten zerbitzuan; baina Lekuonak onomatopeiak sartzen ditu textua gehiago estilizatuz; eta nekeak eta penak gaua suntsitzeraino luzatu beharrean, notiziak ematen dizkigu, ilun zegoen ezkutukia gero eta argiago agertuz.

2.— Sortzea

Erromantze xume baten eitea du, erromantze-eszena deiturikoa, ia dena elkarrizketa denez. Egoerazko hasieraz egiten da sarrera. Gero Maria-ren historia kontatzen da, ibilbide bat egiten delarik Birjinaren galdez, leku bakoitzean bertako pertsonaiari galdeginez. Gero zeruko mandatariaren mezua, ondorengo kezka eta irtenbidea.

Aipagarria da, autoreak hemen bertso-neurketa askatasun handiz egiten duela, aintzinako zenbait herri-textutan bezala. Silabei baino gehiago begiratzen zaie oinei, gaur galdu den baino Lekuonari oso gogozkoa zaion joesera bat markatuz. Gaiak emateko era oso estilizatua dugu, haur literaturaren mesedetan.

3.— Jaiotza

Misterioaren kontaera dramatizatua dugu. Eta konta-poesia estilizatu honek egoerazko hasieraz ematen dio sarrera gaiari. Lehen partean, bost estrofa, etxe bila dabilzala adieraziz, eta mundutarren harrera txarra ere bai. Bigarrenean, lau estrofa, Jesusen jaiotza, aingeruak eta artzaiak. Eta azkenean eskabidea, «Sar gaitzala Berak zeruan».

Soraluzeko «Bi eta iru bider» kantua du oinarri. Lauko txikia denez, bikoitza dugu estrofaren egitura: lehen aldian «Dan, dan, dan» eta bigarrenean «Kras, kris, kras» edo, elkarrizketaren arabera. Eta mugimendu azkarreko molde laburra dugu.

Poema honek duen bereizkuntza nabaria onomatopeien erabilkeran legoke, hots batbera esanahi desberdinak edukitzera daramala:

—«Dan, dan, dan» = sarrera-deia, kanpai-hotsa, danbolin soinua, dan-dan-ok.

—«Kras, kris, kras» = giltzaren itsi-idekia, gelditzeko erabakia.

—«Kris, kris, kris» = kriskitina, aingeruen doinu alaia.

Onomatopeiaz gain, denboraren, orduen eta lekuen aipamen progresi-boa legoke: etxea gero eta beartsuagoa eta orduak gero eta aurreratuagoak. Jauregian hamarretan, etxetxuan hamaiketan, estalpean hamabitan.

Eta simetria egoki bat gordetzen dute sekuentzia guztiek. Eta gaurkoa lehengora ere proiektatzen du, Belengo dorrea aipatuz. Eta Marijesien zantzua nabari da «eta bart Belenen!//Jaio da Jesus Nazaren» horietan (24).

4.— Erregeak

Ia elkarrizketarik gabeko kontaera huts dugu poematxo hau. Sarrera luzea du, hiru estrofitan Erregeak, zaldiak eta izarra zehaztuz. Gero ibilaldiak leudeke: Herodesenera, Belenera, Sorkaldera berriro. Eta azkenean, gaurko umeen aipamena, «zapatatxuan jostallu» eta guzti.

Lehenengo musika, makildantzakoa, hiru silabako oinak markatzeko da, zaldiaren trotea *trakatan* horretan antzatzuz. Jakingarria da, nola autoreak onomatopeia hori estrofaren joanean orain hemen, gero han, tartekatzen duen, maisuki jokatzuz erritmoaren eta onomatopeiaren baliabide poetikoa.

Bigarren musika; berriz, *Herodes Yauna, nun dan* Olaetako kantua bezalakoa. Eskema metrikoa jakingarria du: 7 -, 6 A, 7B, 7 B, 6 A, kontaerarako erraztasuna ematen duelarik.

Eta azkenik, adiektiboen ugaritasuna adieraziko genuke, koloreak, irizti moral ezkutukoak eta afektibitatea eta maitagarritasuna agertzen direlarik olerkitxoaren pasarte guztietan.

5.— Ejiptora

Aurreko kantuan zaldi trankoa markatzen zuen eran, oraingoa astoaren pausaje bikoitzean geratzen zaigu, lehengoan azkartasuna bezala hemen apaltasuna adieraziz. Eredu musikala «Aldapeko sagarraren» deiturikoa, «traka-traka» onomatopeiaz astoari erantsiz.

Poematxoak sarrera egoerazkoa du, txaplasta modura landua, hiru estrofitan emana; eta Ejiptorako bidean gizon gaiztoak, umetxoek garrasiak

(24) M. LEKUONA, *Literatura oral vasca*, in «Idazlan Guztiak», «Kardaberaz bilduma, 22 z., «Eset», Gasteiz, 1978, 456 or.

eta ama gaisoen negarrak aipatzen dizkigu. Gero, Ejiptoko bidaiako kontaera bat. Eta azkena, musikaren «txiru-liru-li» hori Ejiptoko ongietorriari erantsiz.

Ohar bat merezia du bidaiako leiendak. Oñatiko kondien hilobitik hariturik dago. Han azaltzen da, tailatua, ereiten ari direla, eta gero biltzen. Aita Lizarralderen interpretazioa da autoreak hemen jasotzen duena: mirari bakte desbideratzen ditu Haurraren ondotik zetozenak.

Bost aldiz ateratzen denez, «Arre, arre» txaplastak du garrantzia, transizioak eta giroa adieraziz. Kontaeretan, berriz, «Orra Mari Domingi» da diskurtsoaren eredu. Baina errima baten ordez hiru jartzen dizkigu egileak, kontaerarako gaitasuna areagotuz, azkartuz.

6.— Gurutzea

Erliziozko euskal erromantzeen haritik doakigu hemen autorea. Hau ere erromantze-eszena horietakoa dugu, ia dena elkarrizketa delarik (25). Erromantze xahar batean oinarriturik, «oinez ortotsean» ikusten dugu Jesus; eta hortik, eskaintzak: zapatatxoak, kapelatxoa, jostagailuak. Gero, eskaintzen ondoren, kontaera: egur latz bi hartuz, Jesusek gurutze bat egin du, eta Andre Mariak min du. Gurutzearen irudiak isten digu poema osoaren amaiera.

Sarrerako elkarrizketa umetxo kantarien eta Andre Mariaren artean; bigarrena Ama-Semeen artean; eta kontaera llabur baten ondoren, azkeneko elkarrizketa berriro ere hasieran bezala. Kontaera oso azkarra eta xumea, lauko txikian.

7.— Deia

«Prologus»-aren ondoren, eta kantu bakoitza hasi aurretik, espikerrak ematen digu poemaren nondik-norakoa: zertan ari diren, zertarako ari diren eta une hartan zer abestuko duten, santuei laguntza ere eskatuz. Poemari batasuna eta giroa emateko egokia da espikerraren osagai hau.

Aurkezlearen irudia, hemen dagoen eran, «El retablo de Maese Pedro»-tik hartua ornen. Eta musik eredu «Aitona»-ren *Andre Brigida* izeneko teatropusketa herrikoietik (26). Teknikaz erantzun-salmoen modukoa da, Erdi Aroko usaina dario, gazi-geza haundia: pekatarien aipamena, umeen inozentzia, «zeruetako santu guztiak» hain formulaketa herrikoia.

Arretagari dela derizkiogu antzerkitxo honi, Lekuona Zaharraren literaturgintzaz jabetuko bagara. Hemen nabari dira berak haur literatura egiteko duen moldea, eta baita poesi maila zabalagoan erabiltzen dituen moldeak ere. Gaietan idilikoa dugu, konta-poesia beste molde guztien gainetik jartzen

(25) J. M. LEKUONA, *Ahozko euskal literatura*, «Erein», Zarauz. 1982, 73 or.

(26) M. LEKUONA. *ibid.*, 368-370 or.

duena, estilizazio prozedurak, dekorazio-olekiaren erakartasuna, edukin kulturalak eta klitxe herrokiak. Guzti hau berezia dela uste dugu Lekuonak eskaintzen digun poemagintzan.

VI.— HAURRENTZAKO IPUINAK

Idazlan ohargarri bezala *Txuri eta gorri eta kikirriki* hartzen dugu (27). Ez da jatorriz Manuel Lekuonak sorturiko lana, gai unibertsala baizik, haur literaturan klasikoak diren horietako bilduma. Hala ere egileak, euskal bertsoia ezezik birkreazio bat egiten du, gauza asko beretik sartuz. Hirutatik bat erabat autorearena dugu; eta gainerakoetan ere saiatu zaigu piezak erabat hemengorutzen, euskalduntzearen mailarik zehatzenean. Hezurdura kanpoko badu ere liburuak, okela eta substantzia Lekuona Zaharrak emana du. Eta bertso guztiak ere beretik sartuak ditu.

Azterketan luzatzerik ez daukagunez, honela jokatu dugu. Poesi zatiak ez ditugu aipatuko, *Iesu Aurraren bizitza* eta *Gerrateko nere amabi kantak* idazlanetan esaten ditugunekin nahiko argibide badugunez hemengo olerkitxoek zertzeladak ezagutzeko. Bestalde, prosagintzari dagozkionetan, hari nagusiak markatu baizik ez dugu egingo, alderdirik ezaugarrienak markatuz.

1.— Kontaeraren garrantzia

Kontaerazko generoak lehen mailako garrantzia du Manuel Lekuonaren literatur kreazioan. Poesiaz ari zelarik hauxe entzuna diogu: «Narratibatik kanpo ateratakoak eskutik erortzen zaizkit». Beretzat goimailako baliabidea da ekintzaren hariak sortzen digun gure baitako bilakabide lirikoa. Eta berdin prosaz ari zaigularik ere. Ipuinaren egiturak teknika eta esanahi jakinak hartzen ditu Lekuonaren baitan.

2.— Abereen alegizko eittea

Asmamenezko pertsonai hauek eitte beratsua dute han eta hemen, kanon jakinak daudelarik kultura unibertsalean abere pertsonalduak marrazteko. Honela dira Lekuonaren liburutxoko animalitxoak: «Sagutxu ona, igel gaiztoa, mirua» (14-15); sagu-zaarraren eresia (22-24); labezomorrotxo (25-27); oilo itsua negarrez (28); igeltxo arroxkoa (30-31); oilo gorria (18); txita polita (34-37); katutxo maxiña (39); arranoa, azaria, mozoloa (40-42); axeri gezurtia, oilar azkarra (43-45); sagu txuria (48-50); auntz besatia (51-53); txingurri txikia (54-55); zazpi antxumeak (56-60); astoa eta otsoa (62-64); urreiztiko txitatxoa (66-68).

(27) M. LEKUONA. *Txuri eta gorri eta kikirriki*, «Etor». Donostia, 1978.

Ekintza ezagun baten barruan, bakoitzaren tankera eta jokabideak alde-azurretik emanak badaude ere, lan egokia egin digu autoreak alegizko abereen eta euskal umeen artean hitzezko komunikabide bat sortzen, horretarako hizkera egoki bat landuz. Herri-literaturaren ezagutzak, tradizioz datorkigunetik hartuz, baliabide ezin-hobeak eskaintzen dizkio epitetoak auke-ratzeko, onomatopeiak bereizteko, klitxe xaharrik balego beronen berri emateko, ipuin zaharretako osagaiak aukeran erabiltzeko. Hau bera xehe-kiago 4. parrafoan ikusiko dugu.

3.— Izadiko gauzen alegizko eittea

Hemen ere gai unibertsalen hildotik ibili beharra dauka egileak, baina sartzten dizkigu ahozko literatura ezagutzetik datozkion xehetasunak. Ilargia txiro zen, eguzkia harro, haize itsasora joana, gau belea ikarati, eta urtu egin zen ilargia (38 or.); abereak eta landareak hizketan (46-47 or.); sator beltza eta sagu xuriaren ezkontzan eguzkia, odeiak eta mendia zein baino zein indartsuago (49-50 or.); gau-gautxok soineko beltza du, eta eguzki jaunak tanta txiki beltz batzuk utzi zizkion Mariana Mantal-gorri-ri (70-71 or.).

Berriro esan dezagun, oso ongi uztartzen dituela izadiaren irakurkera tradizionala eta elementu bakoitzari ume-hizkeran egokien datorkion mintzori landuena, gorago esana dugunez.

4.— Ahozko literaturako baliabideak

Baliabide hauek ondo aztertuak dauzka Manuel Lekuonak bere idazlanetan; eta eskuartean dugun liburuxka hau irakurtzean, oso argi dago egilea noiznahi dohala herriaren iturrira, eta ohartuki sartzten dituela idazlerrotan berak ohartuki bereganaturik dauzkan errepikak eta klitxeak. Denak aipatzerik ez daukagunez, neurri zabal batetan behintzat, lagungaririk jakingarrienak aipatuko ditugu.

— Hitzaren mailan: sartuko dizkigu onomatopeiak, izenen hotsekin majikoki jostatuko du, hots haundiko hitzak tartekatuko dizkigu, hitz jo-koak ere tartekatzen ditu, estilizazioa nabarmentzen dela.

— Erritmoaren aldetik: aurki daitezke musika zaharretako erritmoak, kantu zaharrak gaurkoratuz, atsotitzen eittezko neurkerak eta hotskidetasunak erabiliz.

— Egiturretan ere herri-bidetik doakigu: ezin ahaztu haur literaturan hain ezagunak diren enumeraketa-kantuak, poesiazko egitura paralelistikoak, eta prosazko errepika-formulak, gauzen prozesu osoak, antzeko errepikak uztartuz eta kateatuz adierazten direla, hala nola ereini, errotara eramanean, oreka-egin, labean erre eta jan... ekintza bakoitza egitura berberaz baliaturik egiten digula.

— Eta gero, esaldi klasikoak eta ohizkoak, bai kontaezari hasiera emateko, bai bukaera jartzeko. Dena hurrei emateko herriak usarioz landurik daukana zabaltzeko egina: esaera landua, esentzialdua, beti esan dena berri-ro ere ematen saiatuz.

5.— Etnografiako xehetasunak

Etnografiaren eragina haundia da Lekuona Zaharraren idazlanetan. Eta haur literaturan ere ez alperrik. Esango digu oilarrak esanatu duela eguzkia (8 or.), mirua perrejila jan da hil zela (32 or.), Mariana Mantalgorriren gainjantzia nondik den horrela (70-71 or.), eta abar. Euskarak utzi digun herri kulturaren testamentu zaharra gaurkoratzeko ahalegina, hitza eta kultura urrutitik hartzen direla.

Haur literaturari buruzkoak bukatzeko, zera esango genuke: *Iesu Aurraren bizitza eta Txuri eta gorri eta kikirriki* ikusiz gero, ikusi ditugula alor honetan gure iduriko dituen lanik jakingarrienak, eta, bestalde, hauek aztertuz gero, nahiko ongi ager daitezke autoreak erabili ohi dituen literatur teknikak, osagarriak eta joerak haur literaturan. Eta uste dugu Manuel Lekuonak merezia duela aipamen, bat umeei zuzenduriko euskal literaturaren historian.

VII.— KONTA-POESIA HELDUENTZAT

Lanen sailkapena egiterakoan, eta poesiaz ari ginelarik, hiru multzo berezi ditugu: «Olerti»-ren girgkoak, *Gerrateko nere amabi kantak* eta olerki solteak. Hauen artean aukera bat egiteko, bide hau hartu dugu: gauza benetan aipagarriak ez dutenak 6z aztertu; eta, bestalde, bat aukeratzekokotan, jakingarriena eta beste poesi multzoak ere explika ditzekeen hura hartu aztergai.

Geure norberezko senari amore emanez, *Gerrateko nere Amabi Kantak* multzoari ekingo diogu orain. Lekuona Zaharraren poemagintzan kontapoesia da gauzarik nabariena, eta bereziena ere bai noski. Eta «Olerti»-ren giroko olerkietan kontaeratik asko badago ere, guk aukeratutakoek oraindik areagotu egiten dute alderdi hori eta benetan aipagarriak direla esan daiteke berriroko euskal poemagintzan.

1.—«Gerrateko nere amabi kantak»

Izenburu honen azpian hau eransten dio autoreak: «Bederatzi idilio, romanze bi eta imno bat». Eta D. Julio Urquijori eskainitako omenaldi-liburuan argitaratu zen lehenbizikoz, 1949an (27).

Poema honen noiz-nongoak eta giroa aditzera emateko, Lekuona beraren hitzak ditugu egokienak. Honela dio argitaraldiaren oin-oharrean:

«Nere amabi kanta oek, gerratekoak diran arren, ez dira gerrako kantak, pakezkoak baizik. Gerratean egin nituan, eta orregatik de-

(27) M. LEKUONA, *Gerrateko nere amabi kantak*, in «Homenaje a don Julio de Urquijo e Ybarra», 2 t., Donostia, 1949, 529 or. eta hur., separata 1-26 or.

ritzoet «Gerrateko Kantak». Bañan gañerakoan ez dizute polbora usairik. Ez dira gerrako atabal-ots, ez gerrako turuta-soñu ere. Belengo ta Nazaret'eko pake ederraren oiartzun dira. Lasarten egiñak dituzu. Lasarteko Komentuan. Beragatik azaltzen da kanta bakoitza Lasarteko monjaren baten izenari loturik» (28).

Eta gai hauek dira poemaren osagarri datozenak:

a.—Idilioak

Hemen-honetan mistika harikoak ditugu, erlijio-esparru jakin batean maitale direnen mundukoak, Andre Maria, Jesus Haurra, eta Santuen maitetzko jokabideak aipatuz mamituak, eta alderdi fin eta artegintza landuzkoak aukeratuz ehoak. Eta ohizkoak dira kantu horien gaiak: maite-hizketak, presagioak et susmo gaiztoak, ametsak, gogoetak, soinekoak, aszetikamundua eta abar.

b.—Erromantzeak

Izenburu honen azpian egileak kantu hauek ematen dizkigu: Lasarteko Kotsueloko Andre Mariaren gertakariak, eta Santa Brigidaren bizitza.

c.—Imnoa

Lasarteko Andre Maria Kotsuelokoari egindako gorazarrea.

Kontaeraren hariari baino gehiago hitzari, irudiari, antzikurrari eta sinboloari begiratzen zaion garaian, Manuel Lekuonak kantutegi zaharreko literatur egiturei jarraituz, konta-poesia egiten du, erromantzeen eitezko poemagintza batez ere. Eta hau aipagarriagoa gerta daiteke, Lizardik eta garaiko askok eta askok zeramaten norabidea ikusita; areago oraindik, olerkigintza idatzian konta-poesiarako gogoia ezezik, teknikaren ezagutza bera ere nahiko galdua zen garaian. Eta zeresanik ez gerrondoko olerkibideak aztertzen baditugu.

Beste alderdiak alde bat utzita, poemien egiturak eta zati nagusiak xehe-turik eskaini ditzagun.

2.— Hasierazko egoerak

— «Komentu-ederra zan.
 Eta Komentuan
 lore-baratz polita
 —arkuk inguruan—» (29).

(28) *Ibid.*, 3 or., ohar.

(29) *Ibid.*, 3 or.

- «Birjina agertu zaio
Gemma Galgani'ri
Birjina alkian; Gemma
lurrean exeri
ta izketan ari dira (30).
- «San Antonio jun zan
bein batez Prantzira.
Paduatikan ara
ordu asko dira—» (31).
- «Maria Birjiña
nexka zanean,
goizean lan, eta
arratsaldean
jostera juten zan» (32).
- «Abendua. Gabonak.
Negua, negua...
Elurra zan Lasarte'n.
Komentu-ondua
ixillik, iñor gabe...» (33).
- «*Lili-lore, lili-lore*
lili-lore txuria;
lili-lore, lili-lore
lore txuri-gorria...» (34).
- «Nazaret'en etxe bat...
bean lantegia,
goian etxe-bizitza
txukun ta garbia (35).
- «*Firunfirun* ardatza;
astean-astean mataza,
illean-illean pieza...
Orra gure Printzesa» (36).
- «Bakarzale bat bizi
zan basa mortuan» (37).
- «Uso zuri ederra,
zeruan zer berri?» (38).

(30) Ibid., 4 or.

(31) Ibid., 5 or.

(32) Ibid., 8 or.

(33) Ibid., 9 or.

(34) Ibid., 12 or.

(35) Ibid., 13 or.

(36) Ibid., 15 or.

(37) Ibid., 16 or.

(38) Ibid., 21 or.

Zirkunstantziei egokituak dira zazpi, beste bi onomatopeiazkoak eta beste bat sinbolikoa. Usarioaren hildotik doaz, eginkera bat isladatzen digu-la autoreak hastapenezko idaztankera hauetan.

3.— Kontaerak eta elkarrizketak

Neurtzen badugu zenbat diren kotaerazko bertsoak eta zenbat elkarrizketakoak, xehetasun hauek bil ditzakegu:

	Guitara	Kontaera	Elkarrizketa
<i>Maite-izketak:</i>	32	19	13
<i>Ama Birjiña ta Gemma Galgani:</i>	82	21	61
<i>Aita San Antonioren mirari bat:</i>	136	124	12
<i>Ama-susmoak:</i>	72	72	0
<i>Ametsetan:</i>	152	132	20
<i>Belengo txoria:</i>	50	24	26
<i>Jesus Aurraren seaska:</i>	96	70	26
<i>Jesus'en soñekoa</i>	42	27	15
<i>Tilin-talan...:</i>	62	34	28
<i>Lasarteko Andre Mariaren kantak:</i>	194	194	0
<i>Santa Brijidaren kantak:</i>	258	258	0
	1.176	975	201

Konta-poesiaren barruan, eta erromantzeen hildotik doalarik, oro har ia bost alako dira kotaerazko bertsoak; ba dira elkarrizketarik ez dutenak ere; eta bakarra da erromantze-eszena deitu genezaiokeen poema: bigarrena. Lekuen, garaien eta ekintzaren batasunak hautsiz, eta dramatizazio pusketak sartuz elkarrizketen bidez, horretan finkatzen du poemagintzaren estetika estrukturala, ederra kontaeraren bidez lortzen digula. Eta hau aipagarria da, eta atipikoa Lekuona Zaharraren garaian, berak erabiltzen duen neurrian behintzat.

4.— Literatur moldeak eta egiturak

Sarrerak eta erremateak antzekoak badituzte ere, ez dira berdinak erai-kuntzak beren konposaketa estetikoan. Ikustagun:

a.—Erromantze-eszenak

Lehenengoa eta bigarrena har ditzakegu bereziki. Bietan elkarrizketaren bilbakuntza da poemaren ardatza. Eta elkarrizketa bera, progresio antzean ehoa, galde eta erantzunen bidez, gaiaren muinera iristen garel.

b.—Asmamenézko edo asmamenetik duten kontaerak

Zuzeneko kontaerak dira baina kontagaiak asmamenezkoak; erabat, edota oinarria besteek diotenean hartuz, autoreak sortuak. Hauek lirateke: hirugarrena *Flos Sanctorum-en* edo aukeratuak; eta laugarrena, bostgarrena eta zazpigarrena egilearen asmamenetik datozkigunak. Azkeneko hauek ez dira txarrenak poemaren olerkigintza osoan.

c.—Kontaera sinboliko-alegorikoak

Irudi bat dute oinarri: seigarrengeak Belengo txoria eta zortzigarrengeak Jesusen soinekoa. Irudi honen irakurkera kontaera baten bidez osatzen da, «Orlaxe kantatzen zuan/Belen'go estalpean/baztarreko saratsetik/Pazku-arratsaldean», txoriaren kasuan; eta berdin soinekoaren kasuan ere, «*Firum-firum* aria/ardatz-jokuan Maria»... Eta kontaeraren haritik datorren irudi horrek garapen bat hartzen du, halako eitte alegorizatu bat lortzen duelarik. Oso lirikoak gertatzen dira, Verdaguer-en'poesi liriko eta kantuetatik duela lehenengoak, euskal erromantze erlijiosoetatik bigarrenak. Sinbolo-giaren sentiberatasuna darite bi poemok.

d.—Kontaera didaktikoa

Bakarra dugu honelakoa, bederetzigarrena, *Tili-talan, monja on bat zer dan* izenburua daramana. Bakarzale zahar, bizar-zuriak, mutil gazte bati ematen dion irakaspena dugu. Zenbait onomatopeia aitzaki hartuz, *lan-talan jan-ta-lan*, eta *tilin-talan*, Jaunaren morroi zintzo nola izan erakusten dio.

e.—Erljiozko kronikak

Hamargarren eta hamaikagarren kantuak dira eitte honetakoak. Kontsuloko Andre Mariaren «pozaldi eta laudorioak» kantatzen ditu *Lasarte'ko Andre Maria'ren kantak*; eta Suezia-ko fundatzailesaren bizitza, berriz, *Santa Brigidaren kantak*. Biok euskal erromantze erlijiosoan hartzen dute apio.

Honenbestez nahiko argi ikus daiteke Manuel Lekuonak konta-poesiari ematen dion garrantzia, ateratzen dion etekina. «Narratibatik kanpo aterratukoak eskutik erortzen zaizkit», entzuna diogu berari. Oso berea du egileak kontaeraren emozioa olerkigintzan.

5.—Bukaerak

—«Nik, Jesus'en Teresa...
(Ta Aurrak maltxur-maltxur:)
Nik ba... (parrez ortz-txuri:)
Te-re-sa-ren Je...xux» (39).

(39) *Ibid.*, 3 or.

- «Jardunaren ondotik
biok ixil-aldi...
Kalean bei-gurdi bat
kirrin-kirrinkari» (40).
- «Orra bertan kantatu
kanta berrietan
Santuaren mirari
polita benetan.
Eskatzen badiogu
gogoz otoitzetan,
berak sartuko gaitu
gero zeruetan» (41).
- «Malkotxo bi zeuzkan
begi-ertzean...
eta min goxo bat...
an...biotzean» (42).
- «Ikusi nuan juten;
negarrez zijuan...
matrallean malko bi
ageri zituan» (Astoak, elgia) (43).
- «*Lili-lore, lili-lore*
lili-lore txuria;
lili-lore, lili-lore
lore txuri gorria» (44).
- «Ta biok Aurtxoari
gelditu begira...
Jose'ri bizarretan
malko bik dizdira» (45).
- «Liñuzko jantzi panpiña,
ez ortarako egiña!...
Jesus billutsik egon-da, nola
jantziko det nik urdiña?
Beltxak obeto ageriko du
nere lutuaren miña» (46).

(40) Ibid., 5 or.

(41) Ibid., 7 or.

(42) Ibid., 9 or.

(43) Ibid., 11 or.

(44) Ibid., 13 or.

(45) Ibid., 14 or.

(46) Ibid., 15 or.

- «Geroztik da esana:
 Jaunaren morroitza,
 lana ta otoi-tza;
 edo-ta, berdin dana:
 Monja ona zer dan?
Tlin eta talan» (47).
- «Berri-on dezagun, bai,
 gaur, bigar, an t'emen.
 Ala gerta dedilla!
 VIVAT IESUS! AMEN» (48).
- «Aingeru maite ederra,
 zeruan zer berri?
 Zeruan berri onak
 len, orain ta beti;
 zeruan berri onak
 gaur, bigar ta etzi» (49).

Erromantzeen eta kantu zaharren haritik doaz bukaera hauek. Lehenengoan, irudi progresiboen azken-kolpea dator; bigarren-goan, laugarren-goan, bostgarren-goan, zazpigarren-goan erromantzeen bapateko etendura dakarte, idiliotik esnatzerakoan errealitateak dakarren mina; hirugarren-goan, hamargarren-goan eta hamaikagarren-goan didaktikoago, adore eta desirazko hitzetan; seigarren-goan hasierako txaplastarekin amaitzen da idilioa; zortzigarren-goan gogoeta ageri da, eta bederatzigarren-goan irakaspena.

6.— Irakurkera funtzionala

Gaurrengungo ahogo-zoaren arabera, idilio hauetako gaiak finak, xumeak eta bitxiak ere gerta daitezke. Baina ez dugu ahaztu behar noiz eta zergatik eginak diren. Garai hartan harreman afektiboen hizkuntzaz asko baliatzen zen erlijio-sentierak adierazteko, orduko kantu, irudi eta pietate-formetan; eta idilioak lantzea oso erabilia zen orduko poemagintza erlijio-soan.

Bestalde, guda-garaiak berak ematen die poemoi beren esanahi sinboliko zabala. Kanpoan gerrako atabal-hots, gerrako turuta-soinu; konbentuan pake, otoi-tza, lana eta itxaropena. Eta poetak, «zatorrarena» zegien poetak, kontraste bizian zeuden kanpoko gerrate eta barruko pakearen artean, bigarren hau kantatzen du. Eta bertan nabari da zatorrarena eginez ihestiarrak bizi ohi duen borroka isila eta borroka gogorra, baina orobat borroka pake-tsu eta pakegilea. Eta ikuspegi honetan hartzen dute gerrateko kantu hauek beren esanahi poetiko betea, poemagintza mistiko-umanista batean.

(47) *Ibid.*, 17 or.

(48) *Ibid.*, 20 or.

(49) *Ibid.*, 25 or.

VIII.— SAIAKERA

Haur literaturarekin eta konta-poesiarekin batera, Manuel Lekuonaren literatur kreakuntzan saiakera aipatuko genuke. Aipagarria dela derizkiot bere prosagintzari, askoren iritzian estilo berezi eta egokian landua dagoenez.

Besteak beste, artegintzari buruzko idazlanak azpimarratuko nituzke: bai «Egan» eta «Euzko-Gogoan» erreportaia bezala argitaraturiko saiokak, bai bere Arte-izti-n agertzen diren orrialdeak, batez ere, estetikari buruz jakiturikoak. Arte plastikoen ezagutzan haundia da hemen-honetan egiten zaion aitormena, eta, bestetik, hain ongi egosia zeukan gaia saiatu zaigu ematen euskara ederrean. Horregatik egin dugu geure lan honetarako artegai buruzko idazlanen aukera.

Artegintzari buruzko saiakeraz ari garenez, oinarriztat hartu dugun idazlana hau da: *Arte-izti: Estetika* (50). Eta arrazoi honegatik da: garbi ageri da idazlan honetan egileak une bateko isurian egiten duela bere prosa, eta gaiak ere berak arte-gaietan duen itzalaz eta jakinduriaz ematen dizkigula. Eta iritziak ere oso bereak dituela, eta oso ongi ausnartuak, inolako aparagailu kritikorik gabe aurkeztuak, baina zientziaz eta funtsezko ikusmoldez.

Aipatu dugu Lekuona Zaharrak artegaietan duen itzala; eta arte plastikoean ez txikiena. Eta bere ikusmoldea euskaraz ematerakoan saiatu da euskara aseptiko eta egosgaitzari ihes egiten, literatur osagai askoren sintesia eskaintzen. Eta bere prosagintza oso berezia gertatzen bada ere, ez daiteke uka duen argia, duen ederra, duen ona.

Bere estilistika ezagutu-erraza gertatu ohi da: perpausak sintaxiaren zerbitzuan errepikatuz, hitzak ahalik-eta konkretuen sartuz, esaeren oreka eta paralelismoa gordez, elisioak aringarri ekarriz, intzisoak tartekatuz, gauzak ugari baina gehiegirik gabe aipatzen saiatuz, «gauzak argi ta garbi» aurkeztea irizbide estetiko bezala erabiliz, agertzen du bere hitz-lauzko idazlana; eta ezaguna gertatzen da euskal saialarien artean artegaiak emateko eran.

Hitzen erabilkeran ere agertuko digu jakingarririk. Etimologi lanetan aritua denez, ezagutza semantikoa gogokoa zaionez, eta herri-hiztegia ere aberatsa daukanez, azertu onak ditu arte-kontzeptuei euskal izenak ezartzekoan, saiakera mailan behintzat; eta esku ona agertzen du hitzen konposaketak egiten, mugagabeen erabiltzen, erdara sartu behar denean inongo eskusarik gabe zapla sartzan... Praxis haundia agertzen du prosa artistikoaren erabilkeran, aspaldiko itzulpen-lanek, erdal klasikoen ezagutzak eta etimologi lanek emaniko eskarmentu eta berezko senan.

(50) M. LEKUONA, *Arte-izti: Estetika*, in «Idaz-lan guztiak», 3 t., «Kardaberaz Bilduma», 24 z., «Eseb», Gasteiz, 1978, 7-47 or.

Ez da orain gure asmoa prosagintza honen azterketak egiten hastea. Luzeegia litzatekeenaz gain, nahiko zaila litzaiyuke Lekuonaren prosagintzak duen literaturtasuna arakatzea, puntuz-puntu xehatuz gaia. Eta zaila ezezik batzurentzat ezinezkoa ere izango litzateke hori, horrelako prosa ez-literarioa denez horientzat. Dena dela, Lekuona Zaharraren literaturgintzaz ari garelarik, ezin-utzizkoa zen saiakeraz zerbait esatea: sintesis ederrean biltzen ditu bere idazgintzak herri hizkuntza aukeratua, gaien kontzeptu zehatza eta azalpenaren joskera estetikoa.

IX.— ANTZERKIGINTZA

Gorago, «Aipamen eta iritziak» izenburupean ikusi dugunez, euskal literaturaren historiari buruzko eskuliburutan *Eun dukat* baizik ez da aipatzen, Manuel Lekuonaz mintzo direnean. Ikuspegi honi amore emanez, zerbait esan beharra zegoen autorearen antzerkigintzaz. Baina bestalde, hor dago, baita ere *Zigor* operaren libretoa, lan arretagarria noski, suposatzen duen ahaleginari eta duen hitzezko kalitateari begiratzen badiogu. Horregatik, eta azken puntu bezala, Lekuona Zaharraren antzerkigintza arakatuko dugu, zenbait argibide bilduz.

1.— «Eun dukat»

Antzerki honen lehen bertsioa Donostiako *Juventud Integrista-rako* egin zen, 1914 inguru, Inazio Maria Etxaideren aholkuz egin ere. Lehenagotik beste komikizun bat eginik zeukan Manuelek bazkun horretarako, *Azienda Publikua* zeritzan antzesgai barregarria, gaur galdua. Berau eman ondoren, Etxaidek eskatu zion lirikotasun gehiagoko beste lan bat egin zezaia; eta Etxaidek berak ezarriko ziola musika. Eta hala sortua da *Eun dukat*.

Handik urte batzutara, ikusirik «Ramus» protagonista nahiko barregarri gelditzen zela bertsio hartan, anaia Martinek pentsatu zuen beste bukaera bat eman behar zitzaioia antzerkiari. Bi anaien artean birregina izan zen *Eun dukat*, eta «Antzerti»-n argitaratu zen (51).

Argumentuaren korapiloa, herri-ipuina bat dugu. Kontaeraren esanahia da, «guztia nai dabenak, guztia galtzen dau» atsoitza. Mami hau kontaeraz jatzeko, Azkuek esaten diguna aipatuz, bi pertsonaia aipatzen dira: itsua eta eskribaua, edota itsua eta sartrea (52). Lekuonaren kasuan menditar itsuak bere iloba kaletartua iruzurtzen du.

Ez da gure asmoa azterketak egiten hastea, zerbait bereizgarri azpimarratzea baizik. Eta esan nahi genuke saiakera jakingarria gertatzen dela musika aldetik, pasarterik nagusienetan zartzuela eittea hartzen duenez, orduko koru ederretaz baliatu asmoz tankera hori ematen zaiola.

(51) M. LEKUONA, *Eun dukat*, in «Antzerti», 41-42 zz., «Lopez Mendizabal», Tolosa, 1935.-ID., *Bi antzerki ta itzaldi bat*, «Kuliska Sorta», 56 z., «Itxaropena», Zarauz, 1965, 8-55 or.

(52) R. M. AZKUE, *Cancionero popular vasco*, 1 eta 2 tomoak, «La Gran Enciclopedia vasca», Bilbo, 1968, 307 eta 920-922 or.

Ipuina eskatzen duenez, itsuari ofizioko bat aurkatzen zaio: dantzetako textuan eskribaua, bertsotakoan sastrea, eta Lekuonaren antzerkian iloba. Musikari begiratzen badiogu, berriz, «Artxintzar» pertsonaia da, zirikatzaile bezala, «Ramusen» ondoren garrantzitsuena. Protagonistaren laguntzaileak dira gehienak: herritarrak «iratzebaileen» itxurapean, gaztetako lagun-zaharrrak, auzoak.

Denboraren iraunaldia goizean hasten da eta ilunabarrean bukatzen. Bi ekitaldi ditu: goizekoan planteiatzen da auzia, eta arratsaldean ematen zaio korapiloari askabidea.

Lirismo haundiko piezak dira goizaldeko eta ilunabarreko koruak, pertsonaien aurkezpenak, eta, batez ere, lehen ekitaldia bukatu aurretik, pianoan «Oinazez» ari delarik, «Ramus»-ek egiten duen barne-agerketa, arku-meak saltzerakoan zer sentitzen duen adieraziz. Pasarte musikaldunak oso lirikoak gertatzen dira gehienak.

Ingurugiroz, mendi-mendikoa dugu Eun dukat-en kokalekua. Artzai-giroko antzerkia eskaintzen digu. Serie bat egiteko asmoa zuten Lekuona bi anaiek: hau artzantzari eskainia, eta gero beste bat nekazaritzari, eta hirugarrengoa bat olagintzari eta azkenik arrantzaleei. Hamaika horrelako asmo bezala, hau ere gudateak moztu zuen, eta horretan gelditu zen orduko ametsa.

2.— «Zigor»

Manuel Lekuonak Zigor-en (53) egin duen lanaz mintzatu aurretik, zenbait oharkizun egin beharra dago. Bera baldin bada ere, libretoa idatzi zuena, egiletasunari begiratuta, on da gauzak nola idatzi ziren gogora dezagun.

Dramakizun-gaia Campionetik hartua da, honek Santxo Garzes Nafarroako Erregeri buruz idatzitako historiatik hartua. Zinkunegi J. jaunak gai horretatik opera baterako gidoia takutu zuen. Eta gidoi hau Bilboko ABAO-k aukeratu zuen Frantzisko Eskuderok oinarri horrekin opera bat egin zezan.

Gehiago oraindik: gidoian oinarrituz egiten zen musika-lana. Eta gero zetorren idazlearen egitekoa, gidoian zetorrena eta musikalaria egin zuena hitzen eta esaunden gidez jaztea, batasun bat lortzea, neurri onean eta egokitasun ederrean eramanez gaiaren eta musikaren haria. Honela dio A. M. Labayen jaunak:

«Musika-doñu ta eresiak bear bezela bururatzeko opera-gai hori orraztu bearra zeukan; eta nai ta naiezkoa zuan elkar-izketak borbildu, itz neurtuetan jarri, agerraldiak banatu ta azkenik, gertakari guziak ondo josi ta ontzea» (54).

(53) M. LEKUONA, *Zigor*, «Kuliska Sorta», 54 z., «Itxaropena» Zarauz, 1963

(54) A. M. LABAYEN, *Zigor*, in «Egan», 34 (1965). 150 or.

Lan luzea eta artesau-lana Eskudero eta Lekuonak burutu zigutena. Hiru urtez aritu ziren aste oroz bilerak eginez, trozuka-trozuka aurrera zera-matelarik operaren ehotzea. Eskudero jaunak musika egina ekarri ohi zuen. Eta gero zetorren letragilearen lana, musikaren neurri guztiak azken silabarraino errespetatuz. Artesautza bizia dela esan behar lan-sistema hau, zeharo estuak direlarik eta neurtuak hitzaren pasabideak.

Literatur kreazioari bagiratuta, letragilearen lana honetan legoke, besteak beste: bertsoaren forma ematean, lekuei, orduei eta ekintzei kultur eza-gutza on bat ezartzean, pertsoneri eta gertakariei benetakotasun bat erans-tean, gidoiaren eta musikaren maila abstraktoagoari textugintza egokia erantsi izanean. Honelako pitxi-lan finean Lekuona Zaharrak azaldu digu bere esku ona: hitz-neurturako duen sena, tradiziozko poesi moldeen eza-gutza, euskal bizitza eta historia adierazteko dituen baliabideak. Eta Zigoren hitza gidoiaren eta musikaren ondotik badator ere, badu textuak bere nortasuna, bere poema-gai preziatua.

X.— ONDORIO GISA

Lehenik esan behar genukeena da Manuel Lekuonaren kreazio lanak han eta hemen barreiatuak daudela, argitaraldi zeharo desberdinetan, eta zaila gertatzen dela lenei hurbilketa bat egitea. Horregatik ondo etorria izango da egilearen *Idaz-lan Guztiak* bilduman literaturgintzari eskainirik aterako den alea. Errazturik gel daitezke aipatu zailtasunak.

Euskal literaturari buruzko eskuliburutan Lekuona Zaharra teatrogile, poeta eta prosalari bezala agertzen da; orokorki bezain laudoriotsu eginik dago bere aurkezpena. Geure aldetik, literaturaren hiru barrutitan finkatu dugu Lekuonaren gaitasun berezia: haur literaturan, konta-poesian, saiakeran.

Euskarazko haur literaturaren esparruan autoreak antzerkia, olerkia eta ipuinak landu dizkigu. Bai *Iesu Aurraren bizitza*, bai *Txuri eta gorri eta kikirriki* eta bai Arabako umeentzat egindako olerkitxoak, lekukotasun ederra egiten dute gure hizkuntzan umeei eskaini zaion literaturan. Ikusirik bere estilazio-prozeduran, berak dakarzkigun edukin kulturalak eta klitxe herrikoiak, bere literatur baliabideak eta estetika joerak Manuel Lekuonak aparteko aipamena merezia duela esango genuke euskarazko haur literaturaren historian.

Konta-poesia da bigarren mailan adieraziko genukeena. *Gerrateko nere amabi kantak* eta «Olerti»-ren inguruneko poesiek ezaugarri berezi bat dakarkigute: konta-poesia. Egileak berak esana dugu: «Narratibatik kanpo ateratakoak eskutik erortzen zaizkit». Lekuona Zaharrak gutxi bezala bizi eta sentitu ohi du kontaearen egiturak berekin duen esanahi sinbolikoa eta emozio lirikoa. Eta alderdi hau aipagarria dela jotzen dugu, konta-poesiara-ko ez gustorik eta ez jakintzarik dagoen une honetan, bai bertsolarietan eta bai olerkarietan horrelako teknikak oso gutxi erabiltzen diren garaian.

Prosa ez-literarioa deiturikoa litzateke Lekuonaren literaturgintzan hirugarrenik bereziko genukeena. Gaitasun berezia agertu digu autoreak saiakerak eta erreportaiak egiteko, batez ere arteari dagozkionetan. Gaurkoa baino estilo zaharragoko batetik abiatuz, sintesis ederrean biltzen dizkigu aintzinako teknika deskriptiboa, herri hizkuntza aukeratua, gaien kontzeptu zehatza, sena pedagogikoa eta azalpenaren joskera estetikoa. Gairik elkorrean ere, eta gairik aseptikoenean, Manuel Lekuonak beti utziko du lieteratoen esku artelaria. Dohai jakingarriak aurki ditzakegu herri mailako prosatik prosa-ikasi baterantzako ibilbidean.

Gure azterketaren ondorio hauek ez ditugu bukatu nahi Lekuona Zahararren tankera literarioaz, literatur eitteaz, zerbait esan gabe. Urtearen ibilbide telurikoan Eguberria kantatuko du, kristautasunaren misteriotan Jesusen Jaiotza, familiako bizitzan haurra eta ama, lirikaren esparruan idilioa, kulturaren estadiotan herri-literatura ahalik-eta hasierazkoena, formula zaharretan.

Berak ez du ikerketan adinbat ihardun izan literatur kreazioan. Aldian aldiko literaturgilea dugi, gerraz geroztik, *Zigor* egitea izan ezik, asmamenlan bererik eta luzazkorik eduki gabea. Baina artista izan da beti, hitzaren erabilkeran esku onekoa.

Euskal gizarteari begiratuta, bere literaturak zer eragin izan duen eta zer suposatzen duen, «Geroak esan beza». Baina iritziak iritzi, behin baino gehiagotan harridura eta gozotasuna sortzen duten pasarteak aurkituko ditugu, han eta hemen, Manuel Lekuonak utzi dizkigun antzerki, olerki, kontraera eta saiakeretan.